

**KONTSULTA PUBLIKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
INGURUMEN ADMINISTRAZIOARI BURUZKO LEGEAREN  
AURREPROIEKTUA EGIN AURRETIKOA**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hasi du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluko 1. zenbakiak ezartzen duenez, kontsulta publikoa egingo da lege edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua egin aurretik, eskudun administrazioaren web-atariaren bitartez. Kontsulta horretan, etorkizuneko arauak gehien uki ditzakeen subjektuen eta erakundeen iritzia bilduko da, gai hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Ekimena onartzeko premia eta aukera.
- c) Arauaren xedekak.
- d) Egon daitezkeen ordezkari irtenbide erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, xedapen arautzaile orokorrak egiteko prozedura ezartzeari buruzko jarraibideak onartu ziren. Jarraibide horietan zehaztu zenez, xedapen orokorra izapidetzeko zuzendaritza-organo edo -zentro sustatzaileak bete ahalko du aurretiko kontsultarako izapidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taularen bidez.

Aurrekoa betez, eta legearen aurreproiektua egin aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko den eranskinean jasotzen den informazioari buruzko iritzia ematera gonbidatzen dira herritarrak idazki honen bidez.

Vitoria-Gasteiz, sinatu den egunean.

**Ingurumen Administrazioaren zuzendaria**

**Sin. IVAN PEDREIRA LANCHAS**  
(sinadura elektronikoa)





**KONTSULTA PUBLIKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
INGURUMEN ADMINISTRAZIOARI BURUZKO LEGEAREN  
AURREPROIEKTUA EGIN AURRETIKOA**

<p><b>EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b></p>	<p>Ingurumen-arloko beste arau bat egin nahi da, otsailaren 27ko 3/1998 Legea ordezkia dezan eta autonomia-erkidegoaren mailako ingurumen-politika berri baterako oinarriak finkatu ditzan, ingurumen-arloan dauden erronka aldakorrei eta arlo horretan gizarteak dituen eskaerei aurre egiteari begira.</p>
<p><b>EKIMENA ONARTZEKO PREMIA ETA AUKERA</b></p>	<p>Otsailaren 27ko 3/1998 Legea bere garaian aitzindaria izan bazen ere, 20 urte igaro dira onartu zenetik, eta ingurumen-arloko lege-gorputzak garapen handia eduki du orduetik, Europar Batasunak sustatu duena. Estatuko oinarritzko araudira ere eraman da garapen hori, eta, beraz, beharrezkoa da EAEn ere aipatu legearen esparru arautzailea eguneratzea.</p>
<p><b>ARAUAREN XEDEAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrak ingurumen-presioen eta -arriskuen aurrean babestea.</li> <li>• Baliabideak modu efizientean kudeatzea, ekonomia jasangarri eta hipokarbonikoa sustatuz.</li> <li>• Klima-aldaketaren eragina mugatzea.</li> <li>• Erantzunkidetasun publiko-pribatua sustatzea ingurumenaren babesean.</li> <li>• Ingurumen Administrazioaren funtzionamendua arintzea eta soiltzea.</li> <li>• Ingurumenean eragina daukaten jardueren gainean esku hartzeko teknikak erregulatzea.</li> <li>• Ingurumenari buruzko ezagutzen eta informazioaren oinarria hobetzea.</li> </ul>
<p><b>EGON DAITEZKEEN ORDEZKO IRTENBIDE ERREGULATZAILEAK ETA EZ- ERREGULATZAILEAK</b></p>	<p>Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak direla-eta, ezinbestekoa da neurri espezifiko arautzailea egitea, eta ezin daiteke beste aukerarik aztertu, erregulazioa eguneratzeko beharra baita.</p>